

# ZUIN LAUDIO

ZURE UDALA BARRUTIK
LAUDIOKO UDALA

# 2030 HIRI AGENDA:
## PARTAIDETZA BIDEZ LAUDIOKO ETORKIZUNA ERABAKI

# AGENDA URBANA 2030:
## EL FUTURO DE LAUDIO SE DECIDE MEDIENTE LA PARTICIPACIÓN


**ERREPORTAJEA**
8 DE MARZO: UN IMPULSO A LA IGUALDAD

**ENTREVISTA**
ITXASO ESCONDRILLAS, SUBCAMPEONA DE EUROPA DE ATLETISMO

**ERREPORTAJEA**
NUEVA BIBLIOTECA MUNICIPAL

**ERREPORTAJEA**
OBRA AMAITUEN ZERRENDA

**GAI NAGUSIA**
2030 HIRI AGENDA

**ELKARRIZKETA**
LAUDIOGROUP, TOKIKO ENPRESA EHUNAREN BATURA

**ARGAZKI GALERIA**
ARATUSTEAK OSPATU DIRA BERRIRO

Editorial MIC
902 271 902
www.editorialmic.com

# LAUDIOKO UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

## 010
**Telefono finkotik, baina tarifa finkorik gabe deitzen dutenentzat.**
Para quienes llamen de un fijo y no tengan tarifa plana.

## 944 034 800
**Telefono finkotik eta tarifa finkoaz (deia doakoa izateko) edo eskukotik deitzen dutenentzat.**
Para quienes llamen de un fijo con tarifa plana (así la llamada será gratuita) o de un móvil.

**www.laudio.eus**

**IDAZKARITZA**
**SECRETARÍA**
944 034 808

**ALKATETZA**
**ALCALDÍA**
944 034 808

**UDALTZAINGOA**
**POLICIA MUNICIPAL**
944 034 888

**FUNTZIO PUBLIKOA**
**FUNCIÓN PÚBLICA**
944 034 832

**OGASUNA**
**HACIENDA**
944 034 814

**HIRIGINTZA ETA INGURUMENA**
**URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE**
944 034 870

**OBRA, ZERBITZUAK, MANTENTZE LANAK ETA LANDA GARAPENA**
**OBRAS, SERVICIOS, MANTENIMIENTO Y DESARRILLO RURAL**
944 034 860

**KULTURA, KIROLAK ETA JAIAK**
**CULTURA, DEPORTES Y FIESTAS**
944 034 900

**GIZARTE ONGIZATE, OSASUN ETA LANKIDETZA**
**BIENESTAR SOCIAL, COOPERACIÓN Y SALUD**
944 034 840

**HEZKUNTZA, BERDINTASUNA ETA GAZTERIA**
**EDUCACIÓN, IGUALDAD Y JUVENTUD**
944 034 850

**EUSKARA**
944 034 890

**GARAPEN AGENTZIA**
**AGENCIA DE DESARROLLO**
944 034 980

ERREDAKZIOA
REDACCIÓN:
Aiaraldea Kooperatiba Elkartea

JATORRIZKO DISEINUA
DISEÑO ORIGINAL:
Grafik Sarea Koop. e.

MAKETAZIOA
MAQUETACIÓN:
Editorial MIC

PAPERA
PAPEL:
Offset birziklatua 90g/m2
Offset reciclado 90g/m2

BARNEKO ARGAZKIAK
FOTOGRAFÍAS DE INTERIOR:
AIARALDEA KOOP. ELKARTEA

"IRUDITAN"-eko ARGAZKIAK
FOTOGRAFÍAS DE "EN IMÁGENES":
aiaraldea.eus

PUBLIZITATEA
PUBLICIDAD:
mic@editorialmic.com
902 271 902



4-5 **ERREPORTAJEA /** REPORTAJE
**Martxoaren 8, euskarria berdintasuna sustatzeko urte osoan**
El 8 de Marzo, un punto de apoyo para impulsar la igualdad todo el año

6-11 **ELKARRIZKETA /** ENTREVISTA
**Itxaso Escondrillas**

12-13 **ERREPORTAJEA /** REPORTAJE
**Udal liburutegi berriak apirilean irekiko ditu ateak**
La nueva biblioteca municipal abrirá sus puertas en abril

14-15 **ERREPORTAJEA /** REPORTAJE
**Udalak hainbat esku hartze amaitu ditu, beste obra batzuen prozedurak aurreratzen dituen bitartean**
El Ayuntamiento concluye numerosas intervenciones, mientras avanza los procedimientos de otras

16-19 **GAI NAGUSIA /** TEMA CENTRAL
**Laudiok begirada jarri du 2030. urtean Hiri Agendaren bidez**
Laudio pone la vista en 2030 con su Agenda Urbana

20-25 **ELKARRIZKETA /** ENTREVISTA
**Gorka Aguirre**

26-30 **ARGAZKI GALERIA /** GALERÍA FOTOGRÁFICA
**Aratusteak laudiora itzuli ziren**
Los carnavales volvieron a Laudio

**HAZ** | **ASTELEHENETIK OSTIRALERA**
DE LUNES A VIERNES
08:00-14:30 | **SAC**

**Orain Whatsapp ere bai**
Ahora también Whatsapp
**635 703 853**



# MARTXOAREN 8, EUSKARRIA BERDINTASUNA SUSTATZEKO URTE OSOAN

Laudioko Udalak oso modu positiboan baloratu du aurten Emakumeen Nazioarteko Egunari begira antolatutako egitaraua. Berez, lehen urrats moduan planteatu dute, berdintasunari lotutako jarduerak normaltasunez berreskuratzeko prozesuan.



Oraindik pandemia den Damoklesen ezpata ekintza bakoitzaren gainean izanik, Laudioko Udalak aurten egitarau labur eta biziagoa prestatu du Emakumeen Nazioarteko Egunaren testuinguruan. Proposamenen xedea izan da, nagusiki, emakumeei berriro aukera ematea batzeko eta jarduera presentzialak berrirartzeko. “Aurten sumatzen da partaidetza handiagoa, nabari da emakumeak gogoz etortzen direla. Pandemiak triskantza eragin du eta badago berriro batzeko beharra, laguntzeko eta elkarri eragiteko, eta kale eta espazio publikoan ikusarazteko, jakina”, azaldu du Estibaliz Ibarrola Menoyok, udal Berdintasun teknikariak.

Planteamendu horrekin bat, Udalak eredua moldatu du 2022an. Loli Muriel Berdintasun zinegotziak argitu du zertan oinarritu diren aldaketak: “Umorea baliatu dugu gehiago eta saiatu gara kexuak alde batera uzten. Horrek esan nahi du sakondu dugula mezu positiboetan eta antolatutako ekintzei kolore emateko saiakeran. Aurtengo erronka izan da jendeak gozatzea eta ondo pasatzea, berdintasunaren aldeko mezua beti presente egonik, nola ez”.

Zentzu horretan, martxoaren 8an egiten diren erakunde adierazpena eta elkarretaratzea ez ezik, apustu garrantzitsuak egin ditugu. Alde batetik, udalerriko toki ezberdinetan zabaldu ditugu ekintzak eta, bestetik, izaera anitzeko hitzorduak eskaini ditugu. Esaterako, Kasinoak ‘Anarkia relacional’ antzezlana eta Patricia Sornosa umoristaren bakarrizketa hartu zituen, eta Aretako Liburutegian ‘Urpekariak’ izan zen, zeinak musika, ipuinak eta bertsolaritza batu zituen. Halaber, Josune Muñoz literatura kritikoa udal liburutegian egon zen eta Zinegoak gaylesbotrans jaialdiko proiekzioak aurkeztu ziren.

Gainera, ikasle mugimendua eta feministak ere mobilizatu ziren martxoaren 8an, kaleak hartuta eguerdian zein arratsaldean. Bestalde, Altzarrate eta Kaskagorri futbol klubek 1.400 lagun baino gehiago mobilizatu zituzten Berdintasunaren Aldeko Ibilaldian martxoaren 13an.











# EL 8 DE MARZO, UN PUNTO DE APOYO PARA IMPULSAR LA IGUALDAD TODO EL AÑO

## El Ayuntamiento de Laudio ha valorado muy positivamente el programa confeccionado para el Día Internacional de la Mujer de este año y lo ha planteado como un primer paso en el proceso de retomar la normalidad en las actividades unidas a la igualdad.

Aún con la espada de Damocles que supone la pandemia pendiendo sobre cada evento, el Ayuntamiento de Laudio ha preparado para este año una programación más breve e intensa en el contexto del Día Internacional de la Mujer. Estas propuestas han tenido, principalmente, el objetivo de dar la oportunidad a las mujeres, de nuevo, de juntarse y re-emprender las actividades presenciales. “Este año se percibe una mayor participación, se nota que las mujeres vienen con más ganas. La pandemia ha causado estragos y existe la necesidad de volver a encontrarse, acompañarse e interactuar, aparte de visibilizarse en las calles y el espacio público, claro está”, apunta Estibaliz Ibarrola Menoyo, técnica de Igualdad municipal.

Acorde a ese planteamiento, el Consistorio ha adaptado el formato en 2022. Loli Muriel, concejala de Igualdad, explica en qué han consistido esos cambios: “Hemos recurrido más al humor y hemos tratado de dejar a un lado los lamentos. Eso quiere decir que hemos abundado en mensajes positivos y en dar más color a los actos que hemos organizado. El reto de este año ha sido que la gente se divierta y disfrute, con el mensaje de la igualdad siempre presente, por supuesto”.

En ese sentido, además de la declaración institucional y la concentración que tienen lugar el 8 de marzo, se han realizado apuestas importantes. Por un lado, se han tomado distintos puntos del municipio. Por otro, se han ofrecido citas de carácter muy variado. Por ejemplo, el Casino acogió la obra de teatro ‘Anarkia relacional’ y el monólogo de la humorista Patricia Sornosa, y la biblioteca de Areta ofreció ‘Urpekariak’, que combinó música, cuentos y bertsolaritza. Igualmente, la crítica literaria Josune Muñoz estuvo en la biblioteca municipal y hubo una proyección del festival de cine gaylesbotrans Zinegoak.

Además, el movimiento feminista y estudiantil también se movilizó el 8 de marzo, tomando las calles tanto al mediodía como a la tarde. Por otra parte, los clubes de fútbol Altzarrate y Kaskagorri movilizaron a más de 1.400 personas en la Marcha Por la Igualdad el 13 de marzo.

# ITXASO ESCONDRILLAS

Itxaso Escondrillas Laudiokoa da, baina bere bizitzaren zati handia kanpoan igaro du. Orain, Burgosen bizi da eta duela gutxi Europako Atletismo Txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen.

**Lehenik eta behin, zorionak! Zer da zehazki otsailean lortu duzuna?**

Europako Atletismoko Master Kategorian zilarrezko domina eskuratu nuen. Zehazki, 35 eta 39 urte bitarteko kategorian egin nuen, 1.500 metroko proban. Horretarako Espainiako Txapelketan ere bigarren izan nintzen. Printzipioz, 800 metroko proban parte hartu behar nuen, larunbatean, baina igandean 1.500 metroko proba ere bazegoen eta proposatu zidaten izena ematea. Bikoteak animatu ninduen eta azkenean bietan eraman nuen zilarrezko domina.

Europako Txapelketan lehen aldiz lehiatu nintzen eta banekien sasoian nengoela. Aurreko asteetako entrenamenduak oso onak izan ziren eta hara heldu nintzenean bikoteari eta aitari adierazi nien banekiela norbaitek irabaziz gero, izango zela oso azkar egingo zuelako korrika.

Itxaso Escondrillas es de Laudio, pero ha transcurrido buena parte de su vida fuera. Ahora reside en Burgos y recientemente obtuvo la medalla de plata en el Campeonato Europeo de Atletismo.

**Antes que nada, felicidades. ¿Qué conseguiste exactamente en febrero?**

Me hice con la medalla de plata en el Campeonato Máster Europeo de Atletismo. En concreto, corrí en la categoría entre 35 y 39 años. Para eso, fui previamente segunda en el Campeonato de España. En principio, iba a participar en la prueba de 800 metros el sábado, pero el domingo también se corría la de 1.500 metros y me propusieron inscribirme. Me animó mi pareja y en ambas me llevé la medalla de plata.

Competí por primera vez en el Campeonato de Europa y ya sabía que estaba en forma. Los entrenamientos de las semanas anteriores fueron muy buenos y cuando llegué allí les expresé a mi marido y a mi padre que ya sabía que si alguien me ganaba sería porque iba a correr muy rápido.

Ambos me comentaron que mi mentalidad había cambiado en el último año, como consecuencia de la maternidad. Ahora los campeonatos y los entrenamientos son un regalo



# "EUROPAKO ATLETISMO TXAPELKETAN LORTUTAKO ZILARREZKO DOMINA 25 URTEKO LANAREN EMAITZA IZAN DA"

Biek aipatu zidaten nire mentalitatea nabarmen aldatu dela azken urtean, amatasunaren ondorioz. Orain txapelketak eta entrenatzea opariak dira eta gehiago gozatzen ditut. Urte askotan lehiatu naiz, eta sarri entrenamenduak eta lehiaketak behar baten moduan ikusten nituen. Orain ez, behar ditut ondo egoteko eta lehiatzeak adrenalina ematen dit.

**Nolakoa izan zen lasterketa?**

Bragan (Portugal) izan zen. Alokatu genuen etxetxo bat nire senarra, alaba, aita eta laurok egoteko. Behin umearen behar guztiak asetzeko bitartekoak bermatu eta gero, beste lehiakideen markak begiratu nituen eta bazeuden hiru oso marka onekin; bat madrildarra, bestea frantziarra eta azkenik, irabazi zuena, britainiarra.

Banekin horiekin taldetxoa sortuko zela eta argi neukan haien atzean jarriko nintzela eta erritmoari eutsiko niola. Lasterketa astiro hasi zen, gero bizkortu egin zen eta azken 500 metrotan abiadura bizian egin genuen korrika.

Bizkortu zenean, lau kirolari horien taldetxoa aldendu egin zen eta nik hutsuneren bat ikusten nuen bakoitzean aurrera egin nuen. Hanketan mina sentitzen nuen, baina burua oso fresko nuen eta hori garrantzitsua da, blokeoak ekiditeko.

Azken 50 metrotan laurak geunden nor baino nor, nik irabazi nezakeela ere pentsatu nuen. Berez, irabazlea eta biok ia aldi berean heldu ginen, berak gorputza apur bat sartzea lortu zuen horrela izan zen txapeldun.

Edonola ere, lehen aldia da negar egiten dudala kirol lorpen batekin, atzean egon den lana izugarria izan baita. 25 urteko lan handia izan da, eta ez dut nik bakarrik egin, nire inguruko jendearen lorpena ere bada; aita, senarra, ahizpak...

Berez, nire senarra atleta oso ona izan da, munduko 8. izan zen, baina orain uste du nire unea heldu dela. Nik entrenatzen dudan bitartean berak zaintzen du umea eta, ondorioz, ez du kirolik egiten.

**Aspaldi ez zara Laudion bizi, azalduko diguzu zein ibilbide egin duzun?**

EHUn ikasi nuen eta ikasketak bukatu ostean Donostiara






# "LA MEDALLA DE PLATA CONSEGUIDA EN EL CAMPEONATO EUROPEO DE ATLETISMO ES EL RESULTADO DEL TRABAJO DE 25 AÑOS"

y los disfruto. Después de competir durante muchos años, hay veces en las que percibes entrenar y la competición como algo obligatorio. En estos momentos no, lo necesito para estar bien y las competiciones me aportan adrenalina.

**¿Cómo fue la carrera?**

Fue en Braga (Portugal). Alquilamos una casita en la que estuvimos mi marido, mi padre, mi hija y yo. Una vez que garanticé que las necesidades de ella estaban cubiertas, consulté las marcas de mis competidoras y había tres con buenos tiempos; una madrileña, otra francesa y, finalmente, la que ganó, británica.

Ya sabía que con ellas se formaría un grupo y tenía claro que me colocaría tras ellas y aguantaría el ritmo. La carrera comenzó a un ritmo lento y después se aceleró. En los últimos 500 metros corrimos a la máxima velocidad.

Cuando eso ocurrió, nuestro grupo se distanció y aproveché cada hueco para adelantarme. Me dolían las piernas, pero tenía la cabeza fresca y eso es importante para evitar bloqueos. En los últimos 50 metros nos jugamos el todo por el todo y pensé que podía ganar. Es más, la ganadora y yo llegamos prácticamente a la vez, pero ella metió el cuerpo un poco y así consiguió ser campeona.

En cualquier caso, es la primera vez que lloro con un logro deportivo, dado que el trabajo que ha habido detrás ha sido inmenso. Un trabajo de 25 años. Y no lo he hecho yo sola, también es una victoria de la gente que me rodea: mi marido, mi padre, mis hermanas...

De hecho, mi marido ha sido un atleta excelente, fue el octavo del mundo, pero ahora cree que ha llegado mi momento. Mientras yo entreno, él cuida de la niña, de modo que ha dejado el atletismo.

# “ITXASO ESCONDRILLAS ATLETA MODUAN LAUDION HASI ZEN”

joan nintzen. Han egon nintzen urte batzuk eta gero Irunera joan ninzten. Han nuen bizitza bideratua, harik eta nire egungo bikotea ezagutu nuen arte. Bera Burgosekoa da eta lanagatik hara joan ginen bizitzera.

**Ibilbide horretan guztietan talde ezberdinetan aritu zara, ezta?**

Bai, berez, Laudio Ikastolan hasi nintzen eta gero Laudio Atletismo taldean egon nintzen. 23 urtetik azpiko mailan sartu nintzenean, behar nuen kanpora ateratzea lehiatzera. Atletico San Sebastian kluba nirekin jarri zen harremanetan eta han egon nintzen lau urtez. Gero, urtebete aritu nintzen Gasteizko talde batean, Irunen bizi izan nintzenean Bidasoa Atletiko Taldean parte hartu nuen eta handik Oviedo Atletismora pasa nintzen sei urtez.

Azkenaldian, ama izan eta gero, behar nuen hemengo talde batean egon. Urtero Gasteizko Lea La Blanca klubak deitzen ninduen eta iruditu zitzaidan une polita zela etxera itzultzeko. Ez dut eurekin entrenatzen, baina Euskadiko Txapelketan eurekin parte hartzen dut.

**Aipatu duzu amatasuna, nola aldatu du horrek zure harremana kirolarekin?**

Dena da erlojupean eta kontrolatua. Entrenatzeko orduan intentsitatea jaitsi dut, baina lehiatzeko momentuan errendimendua altuagoa da. Zergatik? Niretzat atsedenaldi mota bat delako eta gorputza ez dudalako kargatzen.

Nire burua asko aldatu da. Erditzea eta erditze ondoko prozesua ez zen erraza izan eta hor sentitu nuen benetako mina. Orain, lehiatzen dudanean ez diot min fisikoari beldurrik. Badakit egongo dela, baina orain badakit benetan zer den min fisikoa eta muga horiek apur bat harago eraman ditut.

**Ez duzu Laudiorekin harremana galdu.**

Ez, ahal dudanean herrira noa. Lagunak ere hemen mantendu ditut eta norbaitek galdetzen badit ea nongoa naizen, argi erantzuten dut laudioarra naizela.

Atletismoak eta Laudiok oso oroitzapen politak utzi dizkidate. Ellakurira etortzen naizenean entrenatzera, beti esaten dut etxean nagoela. Txikitan Edu Frutosekin hasi nintzen entrenatzen, jende oro bezala, eta oso gustura egon naiz. Berak irakatsi zidan kirola maitatzen.

Gero, nire aitarekin hasi nintzen entrenatzen eta urte ugari igaro nituen berarekin, errendimendua hobetuta. Edonola ere, harremana mantendu dut Laudioko lasterkariekin. Batzuk korrika egiten jarraitzen dute eta beste batzuk ez, baina harremana mantendu dugu, Itxaso atleta moduan hemen hasi baitzen.

**Burgosen bizi arren, euskaraz primeran moldatzen zara, nola egin duzu hizkuntza mantentzeko?**

Nire hizkuntza da, nire herria da eta berdin du non nagoen, ni euskalduna naiz eta horrela sentitzen naiz. Garrantzitsua da hori mantentzea. Donostian euskaraz egiten nuen nire ingurukoekin, taldekideekin eta lankideekin; orain irakurriz lortzen dut. Liburuak irakurtzen ditut, artikuluak...

Argi nuen umeak izen euskalduna izango zuela eta hizkuntza ikasiko zuela. Orain, 15 hilabete ditu eta euskaraz egiten diodanean dena ulertzen du. Nire bikoteak ez daki euskaraz, baina eskatu zidan alabari irakastea, berarentzat ere garrantzitsua da.

—

# “ERDITZEA EZ ZEN ERRAZA IZAN ETA ORAIN MINAREN MUGAK APUR BAT HARAGO ERAMAN DITUT”

# "ITXASO ESCONDRILLAS COMO ATLETA EMPEZÓ EN LAUDIO"

**Hace mucho que no resides en Laudio, ¿nos explicas tu trayectoria?**
Estudié en la UPV y después me fui a Donostia. Allí estuve unos años y después en Irún, donde tenía la vida establecida, hasta que conocí a mi pareja actual. Él es de Burgos y por cuestiones laborales nos fuimos allí a vivir.

**En toda esa trayectoria has formado parte de distintos equipos, ¿no es así?**
Sí, empecé en Laudio Ikastola y después pasé a Laudio Atletismo. Cuando ingresé en la categoría sub-23 necesitaba salir fuera a competir. Me contactó el Atlético San Sebastián y allí estuve cuatro años. Luego milité durante un año en un equipo de Gasteiz y cuando me trasladé a Irún lo hice en el Bidasoa Atletiko para formar parte después del Oviedo Atletismo durante seis años.

Últimamente, después de ser madre, necesitaba estar en un equipo de aquí. Cada año Lea La Blanca, de Gasteiz, me llamaba y me pareció que era un momento bonito para regresar a casa. No entreno con ellas, pero participo en el Campeonato de Euskadi.

**Has mencionado la maternidad, ¿cómo ha cambiado tu relación con el deporte?**
Todo es a contrarreloj y muy controlado. He reducido la intensidad de los entrenamientos, pero a la hora de competir el rendimiento es mayor. ¿Por qué? Para mí es como una especie de descanso y no saturo el cuerpo.

Mi mentalidad ha cambiado mucho. El parto y el postparto no fueron sencillos y sentí auténtico dolor. Ahora cuando compito no le tengo miedo al dolor físico. Ya sé que estará, pero ahora sé realmente qué es el dolor y he llevado esos límites un poco más allá.

**No has perdido la relación con Laudio.**
No, cuando puedo voy al pueblo. He mantenido amistades y si alguien me pregunta de dónde soy, tengo claro que soy de Laudio.

Laudio y el atletismo me han dejado recuerdos muy bellos. Cuando vengo a entrenar a Ellakuri siempre digo que estoy en casa. De pequeña empecé a entrenar con Edu Frutos, como toda la gente, y he estado muy a gusto. Él me enseñó a amar el deporte.

Luego empecé a entrenar con mi padre y he pasado muchos años con él, mejorando el rendimiento. En cualquier caso, he preservado mi relación con los y las corredores de Laudio. Hay quien sigue corriendo y quien, pero matenemos el contaco, Itxaso como atleta empezó aquí.

**Pese a vivir en Burgos, utilizas magníficamente el euskera. ¿Cómo te las has ingeniado para preservar el idioma?**
Es mi lengua, es parte de mi pueblo y da igual dónde esté, soy euskaldun y así me siento. Es importante mantenerlo. En Donostia me comunicaba en euskera con mi entorno, tanto en el equipo como en el trabajo, ahora lo consigo leyendo. Leo libros, artículos...

Tenía claro que el nombre de la niña sería en euskera y que lo aprendería. Ahora tiene 15 meses y cuando le hablo en euskera me entiende a la perfección. Mi pareja no sabe euskera, pero me pidió que se lo enseñara a mi hija, para él es importante.

—

## "EL PARTO NO FUE SENCILLO Y AHORA HE LLEVADO LOS LÍMITES DEL DOLOR UN POCO MÁS ALLÁ"

# UDAL LIBURUTEGI BERRIAK APIRILEAN IREKIKO DITU ATEAK

## Hiru solairu izango ditu udal liburutegi berriak eta ´Frontoiko etxea´ osorik hartuko du.











Laudioko Udalak martxoaren 15ean itxi zuen orain arte Udal Liburutegia izan dena, hemendik aurrera zerbitzua emango duen azpiegitura berria irekitzeko. Izan ere, liburutegi berria apirilean irekiko dute eta Frontoiko Etxeko solairu guztiak beteko ditu:

- Beheko solairuan, ezkerreko aldean, gune digitala egongo da kokatuta, irakurketa gunea eta liburuzainaren bulegoa. Eskuineko aldean, ordea, gazte eta umeen gunea prestatuko dute.
- 1. eta 2. solairuetan, 130 metro karratudunak bakoitza, irakurketa eta ikasketa gelak egongo dira, liburuen apalez gain, jakina.
- Azpiko solairuan kontsigna eta komunak eraiki dituzte.

Aipatzekoa da aurrerantzean gune guztietan toki gehiago egongo dela eta eragozpenak ekidingo direla, erabiltzaileak bananduta egongo baitira. Horrek esan nahi du haurrak ez direla nahasiko ikasleekin, adibidez, berezko esparruak izango baitituzte.

Jarri diren elementuei dagokienez, mahaiek konexioak eta entxufeak izango dituzte eta komunak erabat irisgarriak dira -igogailua dago eraikinean mugitzeko- eta kontsigna ugari prestatu dituzte. Bestalde, solairu guztiak ordenagailuekin hornituta egongo dira.

Eraikinaren bertuteei erreparatuta, nabarmentzekoa da aurreko liburutegia baino askoz argiagoa dela eta herrigunean kokatuta dagoela. Institututik gertu, bi ikastetxeren artean eta Lamuza parkean bertan, Kultura Etxearen alboan.

### Inaugurazioa

Laudioko Udalak ahalik eta jende gehien erakarri nahi du kultura eta sozializazio gune berri honetara, ondorioz, liburutegia inauguratzen denean, zerbait berezia prestatuko du, herritarrek tokia ezagutu dezaten.

### Liburutegi zaharra

Hustuko den lokalari dagokionez, ez da erabilerarik gabe utziko eta ikasgela gisara baliatuko da.

# LA NUEVA BIBLIOTECA MUNICIPAL ABRIRÁ SUS PUERTAS EN ABRIL

## La nueva biblioteca constará de tres plantas y ocupará toda la ´Frontoiko Etxea´.

El Ayuntamiento de Laudio cerró el 15 de marzo la que hasta el momento había sido la biblioteca municipal para proceder a abrir la nueva infraestructura que ofrecerá este servicio a partir de ahora. De hecho, la nueva biblioteca se abrirá en abril y tomará todas las plantas de Frontoiko Etxea:

- En la planta inferior, en el lado izquierdo se encontrarán el área digital, el de lectura y la oficina de los y las trabajadoras. En el lado de la derecha, en cambio, se ubicará la zona infantil juvenil.
- La primera y segunda planta, de 130 metros cuadrados cada una, acogerán zonas de estudio y lectura, aparte de las estanterías de los libros, claro está.
- En la planta inferior se han construido las consignas y los aseos.

Conviene mencionar que de ahora en adelante todas las secciones serán más espaciosas y esto evitará posibles molestias, en la medida en que las personas usuarias estarán separadas. En definitiva, el público infantil no se mezclará con los y las estudiantes, pues cada cual dispondrá de su propio lugar.

En lo tocante a los elementos que se han instalado, las mesas contarán con enchufes y conexiones y los baños serán completamente accesibles -para desplazarse por el edificio se puede utilizar el ascensor-. Además, habrá numerosas consignas. Por otra parte, todas las plantas serán equipadas con ordenadores.

A ello hay que añadir las virtudes de Frontoiko Etxea, que posee mucha más luz y claridad que la anterior biblioteca y está ubicada en el centro del municipio, cerca del instituto, entre dos colegios y en el propio Parque de Lamuza, junto a la Casa Cultura.

**Inauguración**

El Ayuntamiento de Laudio desea atraer la mayor cantidad posible de gente a este nuevo espacio cultural y de socialización. En consecuencia, cuando se inaugure la biblioteca programarán una actividad especial, con el propósito de que la ciudadanía conozca el lugar.

**Antigua biblioteca**

En cuanto al local que se va a vaciar, será destinado a una nueva utilidad, ya que servirá de aula de estudio.



# UDALAK HAINBAT ESKU HARTZE AMAITU DITU, BESTE OBRA BATZUEN PROZEDURAK AURRERATZEN DITUEN BITARTEAN

Udalak bukatu berri ditu legealdi honetan aurreikusitako zenbait lan. Esku hartzeak udalerriko geografiaren hainbat txokotan zabaldu dira eta herrigunean ez dauden auzuneen arazoetan ere eragin dute.



**ASFALTATZEAK:** Martxoaren hasieran egikaritu dira asfaltatze lanak Oleta Bidean, baita Atxarte, Kamaraka, Larrazabal, San Bartolome eta Landaluze kaleetan ere. Esku hartze hau aurreko ekitaldiari dagokio eta 130.000 euro inguruko gastua ekarri du. Udala aurtengo asfaltatzeetara begira jarri da jadanik.

**ARRAPALA IRISGARRIA:** Latiorroko auzoan, Oketa eta Pagolar kaleetako enparantza txikian eraiki da arrapala. Horrek irisgarritasuna bermatzen du herritar ororentzako. Esku hartzeak 160.000 euro baino apur bat gehiagoko kostua izan du.

**LUR-JAUSIEN KONTRAKO NEURRIAK:** Gurpide baserria eta Berrio auzunea lotzen dituen errepidean ekin diote lanei, landa-bide hori egonkortzeko. Izan ere, euriteek luiziak eragin zituzten eta horiek, aldi berean, kalteak sortu zituzten azpiegituran.

**PUMP TRACK PISTA:** 128.260 euroko inbertsioarekin amaitu da pista horren eraikuntza. Aisialdiari lotutako pista bizikletaz edo patinetez gozatzeko bideratuta dago, bai jauzi akrobatikoak egiteko zein oztopoak saihesteko.

**EGUZKI LUMINARIAK**: Udalak eguzkiaren argia erabiltzen duen argi publikoaz hornitu du landa eremuko gune sakabanatua, zehazki, Garate, Izagirre eta Zugatzu arteko gunea.

**UR EDANGARRIA:** Beldui baserriak ura bazuen ere, horren jatorria iturburu bat zen. Orain, tokiko erakundeak lanak bukatu ditu sare publikoko ur edangarria hara eramateko.

Horrez gain, urrats erabakigarriak egin dira bi esleipen garrantzitsuk aurrera egin dezaten. Alde batetik, Sant Roketzar adinduen zentroko handitze eta egokitzapen lanak egikaritzea ahalbidetuko duena eta, bestetik, Latiorroko frontoiko rokodromoaren instalazioa bermatuko duena.

# EL AYUNTAMIENTO CONCLUYE NUMEROSAS INTERVENCIONES, MIENTRAS AVANZA LOS PROCEDIMIENTOS DE OTRAS

El Consistorio ha culminado recientemente algunas de las obras previstas durante esta legislatura. Las actuaciones se han extendido por buena parte de la geografía del municipio, abordando también los problemas de los barrios menos céntricos.

**ASFALTADOS:** A principios de marzo se han llevado a cabo los trabajos de asfaltado en el Camino Oleta, la calle Atxarte, Kamaraka, Larrazabal, Zumeltza, San Bartolomé y Landaluze. Esta actuación proviene del ejercicio pasado y ha supuesto un desembolso aproximado de 130.000 euros. El Ayuntamiento ya ha fijado su vista en los asfaltados de este año.

**RAMPA ACCESIBLE:** En el barrio de Latiorro, en la plazoleta de Oketa y Pagolar, se ha construido una rampa que va a garantizar la accesibilidad a toda la ciudadanía. Aún resta rematar la obra, pero el elemento principal ha sido finalizado. La intervención ha tenido un valor ligeramente superior a los 160.000 euros.

**MEDIDAS CONTRA LOS DESPRENDIMIENTOS:** En la carretera que une el caserío Gurpide con el barrio de Berrio, se ha procedido a ejecutar trabajos de estabilización del camino rural, debido a que las lluvias provocaron desprendimientos que, a su vez, generaron daños en la infraestructura.

**PISTA PUMP TRACK:** Con una inversión de 128.260 euros, se ha finalizado la construcción de esta pista destinada al ocio de personas que disfrutan realizando saltos acrobáticos con bicicletas o patinetes, o bien sorteando obstáculos.

